

Getxo >MEETING<



Urriak 21

Gai batek blokeatzen zaituenerako jarraibideak.

Badakigu zer gertatzen den: batzuetan buruan etengabe darabilgun ideia bat egoten da, baina ez dena behin ere martxan jartzen.

Korapilo hori askatzeko bi teknika proposatuko dizkizugu.

1. Bilatu zergatien azpian.

Egin ariketa idatziz, pentsatuz soilik egiteak ez du balio. Hartu papera eta bolaluma.

Zer egin nahi dudan eta ez naizen egiten ari:

Zergatik suertatzen zait horren zaila? Honegatik:....

Eta, zergatik...?.....

Honegatik:

Eta, zergatik.....

Eta horrela, zeure buruari zergatia 5 aldiz galdetu arte. Eta erantzun arte.

Hori bai, ez du balio “pilota kanpora botatzeak”. Hau da ezin daiteke esan “ez naiz

saltzen ari jendeak ez duelako ulertzen egiten dudana”. Hartu zuri dagokizun ardura. “Saltzea kosta egiten zait, ez dudalako lortzen egiten dudan horren balioa jendeari helaraztea”. Esaldi horrek zuk jardun dezakezun alderdi horren gain jartzen du fokua.

Orain, berrikusi erantzun guztiak eta begiratu “zein haritik egin dezakezun tira”. Ikusiko duzu zergati batzuen kasuan badagoela lehenengo idatzi duzun hori baino garrantzitsuagoa den zerbait.

2. Idatzi etenik gabe.

Aurrera egiteko beste era bat da etenik gabe idaztea harik eta hiru folio bete arte, hau da, burmuinari sortzen uztea. Pentsatzean, sarri korapiloa sortzen da, pentsamendua ez delako gai zenbait gako aintzat hartzeko; izan ere, maiz etengabe eteten gaituzte.

Kezkatzen gaituen gai horri buruz idazten badugu, gai horren ardura hartzen dugu eta ikuspegia aldatzen dugu.

Kezkatzen zaituen gai bati buruz idazten duzunean edo eskemak egiten dituzunean, funtzionatu egiten dute, burmuinetik ateratzen eta kanpoko leku batean islatzen ari zarelako, forma zehatz batekin. Horrek hutsunea uzten du burmuinean. Ideia berriak sartu ahal izateko hutsunea.

Erreminta horietako batek ere ez badu funtzionatu, agian praktikan jarri ez duzulako izan da.

Batzuetan lagungarria da ariketa mota horiek taldean egitea, #GetxoMEETING-en egiten dugun bezala.